

HAUR HEZKUNTZAKO 5 URTEKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT

1. Inprimatu koloreztatu gabeko kartak eta egin kopiak ikasle guztiontzat. Ikasle bakoitzak margotuko eta moztuko ditu bere kartak.
2. Inprimatu koloreztatuta dauden karten kopia bat.
3. Ikasle guztiek bere kartak prest izatean, bakoitzak izango ditu bere kartak eskuan, buelta emanda eta mordo batean. Irakasleak eredu margotuta izango du eta berak jolasa zuzenduko du hasierako partidan.
4. "Nahastu, nahastu" esaten, guztiok (irakaslea barne) nahastuko dituzte bere kartak, irakasleak "hasten gara!" esan arte. Mundu guztiak utzi behar dio nahasteari; geratu garen karta hori lehenengoa izango da.
5. Geratu garen kartatik hasten, zenbatu dugu: bat, bi, hiru, lau eta bost. Zebatzen dugun heinean bost karta aterako ditugu mahai gainean, lerro bat egiten eta buelta ematen, agerian uzteko. Irakasleak ez du egingo pauso hau eta bere kartak multzo batean mantenduko ditu.
6. Irakasleak aterako du lehenengo karta eta ozenki esango du zein familia eredu den. Karta hori izango dituztenek bere lerroan buelta emango diote kartari. Bigarren karta bat aterako du irakasleak eta dinamika berbera errepikatuko da.
7. Prozesu hau errepikatuko dugu norbaitek bere karta guztiak buelta emanda izan arte, Ume horrek "bingo" abestu dezake momentu horretan.
8. Umeak esan behar du zeintzuk diren bere familia ereduak eta irakaslea konprobatuko du bai daudela atera dituen artean. Zuzena bada abestutako "bingoa", umeak pasatuko da irakaslearen papera egitera eta jolasa zuzentzera.

HAUR HEZKUNTZAKO 3 ETA 4 URTEKO UMEENTZAT

Atera koloreztatu gabeko karten kopia bi eta banatu umeen artean margotzeko. Bukatu eta gero "memory" jolastu talde handian, Plastifikatu daitezke gelako jolas bat izatera pasatzeko eta haiek nahi duzunean jolasteko, talde txikian.

Ez badugu nahi umeek koloreztatzea margotuta dauden karten kopia pare bat egin ditzakegu.